

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Lantziegoko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren jakinarazpen kolektiboa jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldia, 2024ko ekitaldiari dagokiona

I. Jendaurrean jartzea

Lantziegoko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokion 2024ko ekitaldiko kontribuzio errolda egin ondoren, errolda hori onetsi da Alkatzaren apirilaren 8ko 33/2024 zenbakiko Ebazpenaren bidez.

Erroldak jendaurrean egongo dira hamabost egun baliodunez, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eragindako zergadunek aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

II. Kobratzeko aldia

Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2024ko maiatzaren 15etik 2024ko uztailaren 15era.

Borondatezko aldiari ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazte aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklamoak eskatzea, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar, 2024ko maiatzaren 15ean egingo baita zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, ordainagiria udal bulegoetan emango zaie zergapekoei, jendearen harrerako ordutegian, Udalak Kutxabanken duen kontuetako batean dirua sar edo banku transferentzia egin dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Lantziegoko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lantziego, 2024ko apirilaren 9a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA